

Navaridaseko urmaela



Ingurumen-garrantzia

Navaridaseko urmaela, Laguardiakoakbezala, endorreikoa da. Horrek esan nahi du ez duela kanporako drainatzerik eta biltzen duen ura berton egindako euria da, beraz, urtaroaren arabera izaten du ura ala ez, eta duenean uraren lamina sakonera txikikoa da.

Urtarokokarakterehonek, bere uren gazitasunarekin elkartuta, biodibertsitatea oso berezia izan dadila eragiten du. Urmaelakolandareki nagusia ihitza (*Juncusmaritimus*) da, batzuetan, lezkadi zabalarekin batera ur-orria ikustea galarazten duena. Flora eta faunaren espezie askoren habitat bikaina da urmaela.

Horietako batzuk balio ekologiko handikoak dira, besteak beste, apo pikarta (*Pelodytespunctatus*) eta apo lasterkaria (*Bufo calamita*). Lezken artean hegazti espezie interesgarriak ditugu: uroiloa (*Gallinulachloropus*), ihi-txoria (*Cisticolajundicis*) eta uroilanda pikarta (*Porzanaporzana*).



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 2,4 km

⌚ 45 min | 🚶

📍 Hurbileko herria:
Navaridas

⚠️ 4 MIDE Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo

🔄 EZ ↑ 539 m ↗ 53 m
↓ 505 m ↘ 37 m



Navaridaseko urmaela



Non dagoen eta nola heldu

Navaridasurmaela Arabako Lurralde Historikoaren hegoaldean dago, Arabako Errioxa eskualdean, Navaridas herritik hurbil, Navaridas udalerrian. Mahastiak dira nagusi, inguru horretan.


Hara heltzeko, Lezatik Navaridasera doan A-3212 errepidea hartuko dugu, eta herrira sartzeko desbideratzera heldu baino lehentxeago dagoen eskuinaldeko pista.

Navaridaseko enparantzan herrira sartzeko errepidea hartu behar dugu, eta Lezatik datorren A-3212rekin elkartzean, ezkerreko pista (Lezarantz). Berrehun eta hogeitabat metro eginda, eskuineko pistatik jarraituko dugu gurutzeraino.

Eskuinekoa hartuta, eta berrehun eta hirurogeita hamar bat metro egin ondoren, urmaela ikusiko dugu, mahastiz inguratuta.

Nahi izanez gero, bidezidorretik urmaela inguratu eta joaneko bidetik itzul gaitezke.

Edozein urtaro da ona urmaela bisitatzeko, baina euri-sasoian ikusgarria da ur-azala.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Navaridaseko urmaela

